

Arazo nagusia, oraindik, alkohola

Droga-menpekotasunari buruzko datuen arabera, heroinaren kontsumoa jaisten ari da

Heroinaren kontsumoa jaisten ari da, eta gero eta gutxiago dira droga-menpekotasunengatik sorospen zentroetara iristen diren gaixo berriak, baina arazo nagusia, oraindik ere, alkohola da. Datu horiek eman zituzten atzo droga-menpekotasunaren aurkako egitasmoaren Nafarroako arduradunek, iazko jardunaren balantzea egin zutenean.

Alberto Barandiaran / Iruñea



Droga-menpekotasunaren aurkako planean hartutako erri berrien erdiek alkoholak eragindako gaitza zuten.

ARTXIBOKOA

PREBENTZIOA, batez ere gazteen, baina baita drogazaleekin lan egitea ere, drogen eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Bi zutabe horien gainean datza droga-menpekotasunari aurre egiteko egitasmoa. 1997an ia 500 milioi pezeta (20 milioi libera inguru) gastatu ziren horretan Nafarroan, eta horren barruan sartzen dira interes handiko programa bereziak, hala droga berrien kontsumoaren ingurukoak, nola metadonarekiko tratamenduak, gazteen kontsumoa aztertzeak eta adin txikikoei dagozkienak.

Oro har, atzo Osasun kontseilari Santiago Cerverak azaldu zuenez, heroinaren kontsumoa jaisten ari da. Erixtetan atenditutako en artean %49 ziren heroinaren kontsumoarengatik, baina erri berrien arloan portzentatua hori %28ra jaisten da. Hala, ber, esan daiteke drogen kariatz hildakoen kopurua iaz izan zela txikiena droga-menpekotasunaren aurkako egitasmo forala martxan jarri zenetik (1992tik): sei hildako. Alkohola da, beraz, arazo nagusia oraindik. Hartutako erri berrien erdiek baino gehiagok horixe zuten gaitza.

Atzo emandako datuen arabera, drogazaleekin lan egiten duten talde terapeutikoetan 227 pertsona izan ziren iaz, gehienak Gizakia Helburu elkartean. Horietatik 57k utzi egin zioten kontsumoari. Metadonarekin

gizarteratzea erabaki zutenak 745 izan ziren, eta horretan osasun mentaleko zentroen, lehen mailako atentzio taldeen, farmazien eta elkarte terapeutikoen laguntza izan zuen egitasmoak. Horietatik 16k senda-agiria jaso zuten iaz, eta 38 drogarik gabeko plan batean sartu ziren.

Prebentzioaz eta asistentziaz gain, gizarteratzea da egitasmoaren hirugarren arlo nagusia. Atzo emandako datuen arabera, 137 drogazalek parte hartu zuten hezkuntza ikastaroetan, eta 362k lana lortu ikastaro berezien bidez.

Pilulak, lortzeko zailak • Atzo, iaz eginiko bi azterketa nagusien

berri ere eman zuen Castiellak. Lehenak droga sintetikoak aztertzen ditu. Horretarako, 1997ko abenduko bi asteburutan hamar gaztek egin zuten segimenduan oinarritzen dira ondorioak. Aztertutako 17 tokietatik bostetan egiaztatu ahal izan ziren mota horretako drogen salmenta eta kontsumoaren bide eta mekanismoak, eta aztertukoaren arabera lerro nagusi zenbait atera dituzte Osasunbideko arduradunek: pilulak aurkitzeko zailak eta orokorrean kalitate eskasekoak direla; *speed*-a gora ari dela, eraginkorragoa, merkeagoa eta eragin iraunkorragokoa izatea; kokainaren eta kalamua-

ren kontsumoa aurreko urteetako mailetan daudela.

Drogekin arazoak dituzten adin txikikoei dagokionez, eta Nafarroa osoan eginiko segimendu sakon eta trinko baten ondotik, ondorioztatu dute 18 urtetik beherako 34 lagunek dutela arazoren bat edo beste. Hauetako gehienek ezagutzen dute lehenik arazoa etxean, bai gurasoetako batek, edo biek, edo anaia-arrebaren batek arazoak dituelako jada drogekin. Horietatik 11 kasutan droga-menpekotasuna antzeman da, eta beste 12tan arazo larriak. Lau haurrek piskopatologia psikiatrikoak dituzte hartutako drogen ondorioz. X

Urtarriletik abuztura bitartean %27 turista gehiago izan dira EAEn

■ 900.000 turistatik gora izan dira guztira urteko lehen zortzi hilabeteetan

Erredakzioa / Andoain

URTARRILA eta abuztua bitartean 900.000 turista izan dira Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, Eusko Jaularitzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak jakinarazi duenez. Iazko datuekin alderatuz gero, EAEn iazko epe berean baino %27 turista gehiago izan dira.

Lurralde bakoitzean izandako hazkundea aztertutik, handiena Bizkaia izan dela ikusten da, %50ekoa. Araban eta Gipuzkoan, aldiz, turismoaren hazkundea ez da hain nabaria izan: %17ekoa eta %15ekoa, hurrenez hurren. Hazkunderaren datuak horiek diren arren, kontuan izan behar da turista guztien %46 (406.000 lagun) Gipuzkoak jaso dituela lehen zortzi hilabeteetan. Horren ostean Bizkaia dago, turistaren %38ekin, eta azkenik Araba, %17ekin.

Turistek Euskal Autonomia Erkidegoan egindako gau kopurua aztertzean, berriz, 1.675.000tik gorakoa izan dela ikusten da. Datu hori iazko urtekoarekin alderatuta, %24ko hazkundea ateratzen da.

Abuztuko datuak bakarrik aztertuta, berriz, turista kopurua %34z eta egindako gau kopurua %30ez handitu da. Gipuzkoan 79.000 turista izan dira, Bizkaian 57.000 eta Araban 24.000. Atal honetan ere Bizkaia izan da nabarmen hazkunderik handiena (%98) izan duen lurraldea.

Jatorriari dagokionez, %68 Espainiatik etorritakoak eta gainerako %32ak atzerriko beste lurralde batzuetakoak izan direla aipatu behar da. Oso azpimarragarria da, gainera, Bizkaian atzerriar bisi-tarien kopuruak %156ko hazkundea izan duela. X

Ez dute atxilotu oraindik Iruñean herenegun gauean labankadaz gizon bat hil zuen gaizkilea

■ Errekoleta plazan izan zen hilketa, hainbat lekukoren aurrean, herenegun arratseko zortzietan

Erredakzioa / Iruñea

HERENEGUN arratsean Iruñeko Errekoleta plazan labankada batez hil zuten Marcos Berriori atzo egin zitoten autopsia eta, bitartean, Poliziak ez du inor atxilotu hilketagatik. Gertaera ikusi zuten hainbat lekukoren arabera, Marcos Berriok (41 urte) eztabaida bat izan zuen bere hiltzailearekin Errekoleta plazaren erdian; eztabaidaren une batean, besteak labankada baka bat eman zion bularrean eta Berrio

lurrera erori zen. Hiltzaileak, bitartean, korrika ihes egin zuen San Lorenzo kaletik. Anbulantzia bat iritsi zen Marcos Berrio laguntzera, eta berehala Nafarroako Ospitaleko larrialdi zerbitzuetara eraman zuten. Ibilbidean eta ospitalean gizona erreanimatzen saiatu ziren arren, Berrio hil egin zen, bularrezurrean jasotako labankadaren ondorioz.

Hilketaren lekuko izan ziren hainbat lagunek zenbait datu eman dizkiote Poliziari, eta arrastotik horiek jarraitzen ari dira hil-

tzailea harrapatzeko. Hala ere, lerro hauek idazterakoan, artean ez zuten inor atxilotu hilketa honekin zerikusia izateagatik. Marcos Berrio iruinsemeak urtebete inguru zeraman aske, 1988an egindako delitu batengatik kartzelan egon ostean. Berriori 15 urteko kartzela zigorra jarri zioten 1990ean, Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalean lapurreta egiteagatik. Lapurreta horretan hil zen 22 urteko gazte baten hiltzaile zuzena izatea ere egotzi zioten.

1988ko azaroaren 18an, Berrio eta beste lagun bat Aurrezki Kutxa sartu ziren horma batean egindako zuloatik. Batak kanoiak moztuta zituen eskopeta zerman eta besteak gezurrezko pistola bat. Bi langile sukurtsalera sartu zirenean, alarmak itzaltzera eta segurtasun kutxa zabaltzera behartu zituzten gaizkileek; hiru milioi lapurtu zituzten. Langileetako bat pistola gezurrezkoa zela jabetu zenean, borrokan hasi ziren, eta Berriok eskopetaz hil zuen 22 urteko gaztea. X

"Esan-Erran Irratian aritzeko bi langile bila gabiltza"

Ez dago esan beharrik euskera benetan menperatzea eta zaletasuna adieraztea derrigorrezkoa denik.

Dena egiteke dagoenez, behar ditugun pertsonen oso dinamikoak behar dutela izan, zonaldea ezagutzea ere ezinbestekoa da.

Urriaren 1a baino lehen bidai itzazu zure datu pertsonalak, ezagutza eta baldin badituzu zure esperientziak. Honetaz gain irrati honetarako proiektu bat aurkeztu behar da (banaka edo binaka egin daiteke).

Argipenak behar badituzu, deitu telefonoa honetara: 948-30 51 34

AMETZA KULTUR ELKARTEA
S. Pedro K/ 11
31797 Larraintzar (Nafarroa)